



## FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: [farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus](mailto:farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus)

| 2024ko Iraila                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                          |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|
| ABS-AREN AURKAKO IMMUNIZAZIOA 2024-2025 DENBORALDIAN                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | 1<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| 2024-2025 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19A                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 2<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| MONKEYPOX-AK EUSKADIN DUEN EGOERA EGUNERATZEA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 3<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| EUSKADIN GPB-AREN AURKAKO TXERTOAK JARTZEKO GOMENDIOAK EGUNERATZEA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | 4<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| AEMPS-EN GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA <ul style="list-style-type: none"><li>• Atorbastatina: daptomizinarekin batera ematea eta miopatia eta errabdomiolisia izateko arriskua</li><li>• Zeftazidima: larruazaleko kontrako erreakzio larriak</li><li>• Hidroklorotiazida/nebibolola: interakzioa antidiabetikoekin</li><li>• Metotrexatoa: fotosentikortasuna, metamizolarekiko interakzioa eta efektu hematotoxikoak izateko arrisku handiagoa</li><li>• Minoxidila: istripuzko hipertrikosia</li></ul> | 5<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 6<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| ARGITALPEN INTERESGARRIAK <ul style="list-style-type: none"><li>• Helduek erretzeari uzteko OME-ren tratamendu klinikoaren gida</li><li>• AEMPS: Giza Erabilerarako Medikamentuen Batzordearen Buletina</li></ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | 7<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | 8<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |
| OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 33. OSASUN BILTZARRA: BOTIKETATIK HARATAGO                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 9<br><a href="#">Jarraitu irakurtzen</a> |

|   |                                                      |
|---|------------------------------------------------------|
| 1 | ABS-AREN AURKAKO IMMUNIZAZIOA 2024-2025 DENBORALDIAN |
|---|------------------------------------------------------|

Osasun Sailak niserbimab (Beyfortus®) antigorputz monoklonal bidezko haurren immunizazioa sartu du ABS 2024-2025 denboraldirako. Hain zuzen ere, ABSak eragindako gaixotasun larria izateko arrisku handia duten haurrena [<12 hilabetekoak prematuritateagatik (<35 haurdunaldiko aste) eta <24 hilabetekoak morbiditateagatik], baita ABSaren zirkulazio-denboraldiaren aurretik jaiotako (2024-07-01etik 2024-09-15era bitartean jaiotakoak) eta ABSaren egungo zirkulazio-denboraldian jaiotako haur osasuntsuena ere (2024-09-16tik 2025-03-31ra bitartean jaiotakoak).

Immunizazio-kanpaina aldi berean hasiko da xede-populazioko talde guztientzat, 2024ko irailaren 16an.

Informazio gehiago: [Osasun Publikoko Zuzendaritzaren informazio-oharra, 2024-2025 denboraldiko ABSaren aurkako immunizazioari buruzkoa](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 2 2024-2025 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19A

Osasun Publikoko Batzordeak udazken-negu denboraldirako (2024-2025) *Gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketa-gomendioen eguneratzea* argitaratu du. 2023-2024 denboraldian gripe-jarduera oso handia izan zen COVIDaren aurreko eta ondorengo denboraldiekin alderatuta, eta ospitalizazio-tasa igo egin zen.

Aurreko urteetan bezala, aurtengo txertaketa-kanpainaren helburu nagusia zaurgarrienak diren pertsonen babesa indartzea da, morbiditateak murrizteko eta infekzio horiek arreta sanitarioa eta soziosanitarioa emateko gaitasunean duten eragina gutxitzeko. Kanpaina iraileko azken astean eta urrian zehar hastea aurreikusita dago.

Dokumentura sartzeko esteka: [Gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketa-gomendioen eguneratzea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 3 MONKEYPOX-AK EUSKADIN DUEN EGOERA EGUNERATZEA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzatik bidalitako [Monkeypox-ak Euskadin duen egoera eguneratzeari buruzko informazio-oharrea](#) (2024ko abuztuaren 26a) egungo egoera deskribatzen da, bai eta txertaketari, zaintza epidemiologikoari eta, detekzio goiztiar eta diagnostiko azkarrari buruzko neurri eta gomendioak ere.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 4 EUSKADIN GPB-AREN AURKAKO TXERTOAK JARTZEKO GOMENDIOAK EGUNERATZEA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzatik bidalitako [Euskadin GPB-aren aurkako txertoak jartzeko gomendioak eguneratzeari buruzko informazio-oharrea](#) (2024ko iraila), txertaketa jarraibidea 2 dositik 1era aldatzea gomendatzen da, 12 urteko haurretan, Euskal Autonomia Erkidegoko haurren txertaketa-egutegian. Era berean, GPBaren aurkako txertaketa-gomendio berriak ezartzeko estrategia deskribatzen da: haurren txertaketa-egutegian eta 25 urtera artekoak erakartzeko ezhoiko kanpainan, arrisku-taldeetako pertsonetan edo osasun-baldintzen arabera, eta zerbixean maila altuko lesio intraepitelialaren ondoriozko edozein tratamendu jaso duten emakumeetan, adina edozein dela ere (CIN2+).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 5 AEMPS-EN GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

2024ko abuztuaren 5eko AEMPS-en giza erabilerarako medikamentuen hileroko segurtasun-buletinean, farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluaziotik datorren ondorengo informazioa nabarmentzen da:

**Atorbastatina: daptomizinarekin batera ematea eta miopatia eta errabdomiolisia izateko arriskua:** Atorbastatina aldi baterako etetea aztertu behar da daptomizina hartzen ari diren pazienteen kasuan. Ezin bada batera ematea saihestu, kreatina zinasaren (CK) mailak neurtu behar dira, astean 2-3 aldiz, eta pazienteak zorrotz monitorizatu behar dira, miopatiaren edozein zeinu edo sintoma hautemateko.

Baskulitisa eta atorbastatinarekiko erreakzio likenoidea gehitu dira, kontrako erreakzio arraro bezala.

**Zeftazidima: larruazaleko kontrako erreakzio larriak:** Larruazaleko kontrako erreakzio larriak jakinarazi dira, hauek barne: Stevens-Johnson sindromea, nekrolisi epidermiko toxikoa, farmakoari erreakzioa eosinofilia eta sintoma sistemikoekin eta pustulosi exantematiko orokortu akutua. Erreakzio horiek bizitza arriskuan jar dezakete edo hilgarriak izan daitezke, eta haien maiztasuna ezezaguna da.

**Hidroklorotiazida/nebibolola: interakzioa antidiabetikoekin:** hipogluzemia-sintoma batzuk ezkuta ditzake, hala nola takikardia eta palpitazioak. Gainera, aldi berean beta-blokeatzaileak eta sulfonilureak erabiltzeak hipogluzemia larria izateko arriskua areagotu dezake.

**Metotrexatoa: fotosentikortasuna, metamizolarekiko interakzioa eta efektu hematotoxikoak izateko arrisku handiagoa:** Fotosentikortasuna ikusi da pertsona batzuetan, larruazaleko erreduren gehiegizko erreakzio gisa agertzen dena. Eguzki-argi biziaren eta UV izpien eraginpean egotea saihestu behar da, eta eguzki-babes egokia erabili.

Metamizola aldi berean emateak metotrexatoaren efektu hematotoxikoa areagotu dezake, batez ere adineko pazienteetan. Ez da batera eman behar.

**Minoxidila: istripuzko hipertrikosia:** bularreko haurretan, zaintzaileak minoxidil topikoa aplikatzen ari ziren larruazaleko eremuekin kontaktuan jarri ostean; itzulgarria hilabete batzuetan, eraginpean egoteari uztean. Minoxidilaren aplikazio-eremuekiko kontaktua saihestu behar da.

Farmakozaintzako datuen ebaluazioaren ondoren identifikatutako **beste kontrako erreakzio batzuk:** besteak beste, **Nimodipinoa:** hipoxia eta **Tirzepatida:** disgeusia.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 2024ko abuztuaren 5ean argitaratutako AEMPSen hileko segurtasun-buletina kontsulta daiteke [esteka](#) honetan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauek dira 2024ko iraileko berritasunak:

| 2024ko iraila                                                                      |                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | Az. Benpedoikoa               | <b>Nilemdo® 180 mg 28 konp.</b> Indikazio berria, finantziatua: gaixotasun kardiobaskular aterosklotiko ezarria edo arrisku handikoa duten helduen kasuan, arrisku kardiobaskularra murrizteko, LDL kolesterolaren mailak murriztean, beste arrisku-faktore batzuen zuzenketaren tratamendu osagarri gisa:<br>- estatina baten gehieneko dosi toleratua hartzen duten pazienteetan, ezetimibarekin edo gabe, edo,<br>- bakarrik edo ezetimibarekin konbinatuta estatinak onartzen ez dituzten pazienteetan edo estatinak kontraindikaturik dituztenetan<br><a href="#">Fitxa teknikorako</a> esteka |
|  | Az. Benpedoikoa/<br>Ezetimiba | <b>Nustendi® 180/10 mg 28 konp.</b> Indikazio berria, finantziatua: gaixotasun kardiobaskular aterosklotiko ezarria edo arrisku handikoa duten helduen kasuan, arrisku kardiobaskularra murrizteko, LDL kolesterolaren mailak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |

|                                                                                  |                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                  |                                                                      | <p>murriztean, beste arrisku-faktore batzuen zuzenketaren tratamendu osagarri gisa:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- estatina baten gehieneko dosi toleratua hartzen duten eta ezetimiba tratamendu gehigarriarekin behar bezala kontrolatuta ez dauden pazienteetan, edo</li><li>- estatinak onartzen ez dituzten pazienteen kasuan, edo hauek kontraindikaturak dituzten pazienteen kasuan, eta ezetimiba tratamenduarekin behar bezala kontrolatuta ez dauden pazienteen kasuan, edo</li><li>- jada azido benpedoikoarekin eta ezetimibarekin, konprimatu bereizietan konbinatuta, tratamenduan dauden pazienteetan</li></ul> <p><a href="#">Fitxa teknikorako</a> esteka</p> |
|  | <b>Txerto antipneumokokiko polisakarido konjugatua (20-balentea)</b> | <p><b>Prevenar 20® aurrez kargatutako xiringa.</b> Indikazio berria, <b>Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazioan sartuta ez dagoena:</b> immunizazio aktiboa, Streptococcus pneumoniae-k eragindako gaixotasun inbaditzailea, pneumonia eta erdiko otitis akutua prebenitzeko bularreko haurrei, haurrei eta nerabeei, 6 astetik 18 urtetik behera bitartean. Prevenar 20® gomendio ofizialen arabera erabili behar da.</p> <p><a href="#">Fitxa teknikorako</a> esteka</p>                                                                                                                                                                                                         |
|  | <b>Leflunomida</b>                                                   | <p><b>Arava® 10, 20 y 100 mg konp., leflunomida EFG 10 eta 20 mg konp. Urriaren 1etik</b> aurrera, leflunomida duten sendagaiak bisatzeko beharra kenduko da.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispensazio-baldintzak zabaltzea.

2020ko urtarritetik aurrerako beritasunak jasotzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

HELDUEK ERRETZEARI UZTEKO OME-REN TRATAMENDU KLINIKOAREN GIDA

Gida honek erretzeari uzteko esku-hartzei buruzko orientazio teknikoak ematen ditu, baita OMEko estatu kideei ebidentzian oinarritutako jokabide-esku-hartzeak erabiltzen laguntzekoa ere eta tabakoa erretzeari uzteko tratamendu farmakologikoak, tabakoa kontrolatzeko ikuspegi integral baten zati gisa.

Informazio gehiago: [WHO clinical treatment guideline for tobacco cessation in adults](#)

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN BATZORDEAREN BULETINA

Giza Erabilerarako Medikamentuen Batzordearen Buletina argitaratu zen 2024ko abuztuaren 7an. Bertan, medikamentu berrietarako iritzi positiboak eta jada baimenduta dauden medikamentuen aldaketa interesgarriak aipatzen dira. Hona hemen buletinerako [esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Aldactacine® 25 mg/15 mg 40 konp. (espironolaktona/altizida)
- Clotrimazol Gine-Canesmed® EFG 100 mg 6 bagina konp. (klotrimazola)
- Fungisdin® 8,7 mg/ml larruazala lainoztatze sol. 125 ml-ko flasko 1 (mikonazola)
- Retirides® 0,25 mg/g krema 30 g (tretinoina)
- Rifaldin® 300 mg 24 kap., Rimactan® 300 mg 60 kap. (rifanpizina)
- Tarka® 180 mg/2 mg kap. ask. luz. 28 kap. (berapamiloa/trandonapрила)

- Tiaprizal® 100 mg sol. injekt. 2 ml-ko 12 anpoila (tiaprida)

#### HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Adisocol® 150 mg, 300 mg, 450 mg 60 konp. (az. ursodeoxikolkoa)
- Amiodarona Aurovitas® EFG, Trangorex® 200 mg 30 konp. (amiodarona)
- Atenza®, Concerta®, Metilfenidato Sandoz® EFG, Rubicrono EFG® 27 mg, 54 mg eta Metilfenidato Tecnigen®, Viatris® EFG 54 mg ask. luz. 30 konp. (metilfenidatoa)
- Atorduo® 10 mg/10 mg 30 kap., Ezetimiba/atorvastatina Teva® 10 mg/10 mg 30 konp. estal. (atorvastatina/ezetimiba)
- Braltus® 10 mcg 30 inhal. kap. + Zonda inhal. (tiotropio bromuroa)
- Feliben® 52,5 mcg/h 5, 10 adabaki transderm., 70 mcg/h 5 adabaki transderm. (buprenorfina)
- Hepaxane® 15.000 UI (150 mg) 1 ml-ko aurrez karg. 30 xiring. sol. injekt. (enoxaparina)
- Manidon retard® 120 mg ask. luz. 60 konp. (berapamiloa)
- Semglee® 100 unitate/ml sol. injekt. 3 ml-ko aurrez karg. 5 luma (insulina glargina)
- Sotapor® 80 mg 30 konp. (sotalola)
- Sumatriptan Aurovitas® EFG 50 mg 4 konp., Sumatriptan Viatris® EFG 50 mg 4 konp. estal. (sumatriptana)

PRESBIDEn “Hornidura ezak” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE; [Medikamentuan hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPS; [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 9 OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 33. OSASUN BILTZARRA: BOTIKETATIK HARATAGO

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak “33. Osasun Biltzarra: botiketarik haratago” antolatu du. Urriaren 25ean izango da, Zornotzan, eta komunikazioak eta posterrak aurkezteko epea luzatu du irailaren 20ra arte. Egitaraua eta aurkezpen gutuna [esteka](#) honetan eskuragarri.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

### Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: [farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus](mailto:farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus)

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez